

Gune Anitza Dosierra



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak uztailaren 4an prentsaurreko bitartez aurkeztu berri du Gune Anitza zigiluaren oinarri izango den dokumentu berria: 'Gune Anitza: Erronkak errealitate bilakatzeko liburuxka'. Aldi berean, Gune Anitza proiektuaren urtebeteko ibilbidearen ebaluazioa eta aurrera begira dauden erronka berriak identifikatzeko aprobetxatu da aurkezpena.

Abiapuntua

2016an Berdintasun lan-arloaren barruan jaiotzen da Gune Anitza zigiluaren proiektua. Zigiluaren beharra antzematen da ikustean egun hainbat direla eraso nahiz indarkeria mota desberdinen aurkako adierazpenak hainbat espaziotan, esaterako puntu morea. Ordea, Berdintasun eta Aniztasunaren aldekatasuna era positiboan adierazten dituztenak ez dira hain ohikoak eta are zailagoa da bi baloreak aldi berean defendatzen dituztenak aurkitzea.

Gauzak horrela, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Aniztasunaren zeharkakotasuna lantzea ezinbestean emakume eta gizonen arteko Berdintasunaren bidean jorratu beharreko erronka bat gehiago bezala identifikatu zuen. Honen ondorioz, 2016an Gune Anitza zigilua jaiotzen da, hutsune honi erantzuna eman nahian.

Aniztasuna zeharkako duten guneak

Aniztasunaren balorea beraien egituran nahiz proiektuetan zeharka txertatzeko konpromisoa hartua duten guneak dira Gune Anitzak. Alegia, identitate, izaera eta orientazio aniztasuna bultzatu, sustatu eta defendatzen duten espazioak eta LGTBI+fobiari, matxismoari nahiz Berdintasuna urratzen duen beste edozein gorroto motari aurre egiten dioten espazioak.

Liburuxka: Aniztasunaren balorea txertatzeko baliabidea

Kontzientziatuta dauden edo gaira dedikatzen diren hainbat elkartek badituzte jada baliabideak eta ikuspegia txertatua dute gehienetan. Ondorioz, ez dute aldekatasuna esplizituki erakusteko beharrik sentitzen.

Gaira dedikatzen ez diren espazio gehienak ez dute ikuspegia txertatzeko baliabiderik ezta aldaketak sortzeko gaitasunik ere ez. Hau dela eta, hainbat guneek beraien atxikimendu desira adierazi izan dute, baina baita ikuspegia martxan jartzeko baliabide falta ere.

Behar honi erantzuna emateko 2017an Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, 'Gune Anitza: erronkak errealitate bilatzeko liburuxka' argitaratu du. Honetan, 2016an proiektuaren oinarri izan ziren Manifestuaren funtsezkoenak mantendu dira. Era honetara, Dekalogoa eta Proposamenak ataletan Gune Anitzaren filosofia laburbildua agertzen da.

Honen ostean, 'Aniztasuna txertatuz' atala garatzen da, zeinetan edozein gune edo proiektuk kontuan izan beharreko hainbat gomendio ematen diren, beti ere gune edo proiektuen beharrei erreparatuz eta fase bakoitzarentzat beharrezkoak diren baliabide konkretuak azpimarratuz.

Honen barnean azpimarragarriena da Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak LGTBI+fobiari aurre egiteko guneei eskaintzen dien elkarlan aukera. Indarkeria kasuez gain, LGTBI+fobikotzat jo daitezkeen egoerak, bazterketa egoerak, gatazkak sortzen dituztenak ere ematen dira. Kasu hauetan, egoera salatzea baino egoeraren konponketa parte-hartzailea edo bitartekaritza bilatzen duten pertsona nahiz espazioentzat, EGK-k bitartekaritzarako aukera luzatzen du liburuan ezarria dagoen prozeduraren bitartez.

Liburuxka honi esker gaiarekiko konpromisoa garatu nahi duten eta barne-baliabide urriak dituzten elkarte, talde eta espazio desberdinak animaraztea da Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren helburu nagusia,

2016-2017 bitartean emandako atxikimenduak

Zigiluaren lehen urtean zehar zailtasunen bat izan badu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, hau izan da, atxikimendurako prest dauden espazioak aktiboki bilatzeko denbora izatea. Hala ere, positibotzat baloratzen da hasierako aurkezpena medio EGKrekin ordura arte harreman gehiago edo gutxiago zuten 10 espazio atxiki izana.

Honekin batera, positibotzat baloratzen da espazio hauen artean aurki daitezkeen espazio-motaren aniztasuna bera. Horrek adierazten baitu gizarte kontzientzia dagoela eta gaia esparru guztietan jorratu behar dela gero eta argiago ikusten dela.

Atxikitako espazioen zerrenda:

Pikara magazine

Helbidea: Lamana kalea 2, Bilbo (Bizkaia).

Telefonoa: 944.979.776

Webgunea: www.pikaramagazine.com

AbadiñoSex Aholkularitza

Helbidea: Trañabarren kalea 5, Abadiño (Bizkaia)

Telefonoa: 944.669.420 (zerbitzua eskaintzen duen udal-sailaren telefonoa)

Webgunea: www.facebook.com/abadinosex.aholkularitza

Atara Zarata Antzerki Taldea

Helbidea: (arretarako telefono zenbakira deitu)

Telefonoa: 687.131.024

Webgunea: atarazarata.blogspot.com.es/

TaPuntu

Helbidea: Florida auzoa 28, Hernani (Gipuzkoa)

Telefonoa: 691.166.409

Webgunea: www.tapuntu.eus/es/

Lahia-Nahia Elkartea (Biluzik Mundura Zerbitzua)

Helbidea: Okendo kalea 9, Donostia (Gipuzkoa) - Donostiko Emakumeen Etxea

Telefonoa: 638.536.638

Webgunea: www.facebook.com/lahianahia.elkartea

Marienea Basauriko Emakumeen Etxea

Helbidea: Kareaga Goikoa 54, Basauri (Bizkaia)

Telefonoa: 946.124.100

Webgunea: berdintasuna.basauri.net/es/

Equo Gasteiz

Helbidea: Adriano VI 28, Gasteiz (Araba)

Telefonoa: 945.015.800

Webgunea: araba.partidoequo.es

Lekeitioko Eskola Publikoa

Helbidea: Larrotegiauzoa z/g, Lekeitio (Bizkaia)

Telefonoa: 946.841.809

Webgunea: www.lekeitiolhi.hezkuntza.net/web/guest

Bizkaiko Urtxintxa Eskola

Helbidea: Zabalbide 26, Bilbo (Bizkaia)

Telefonoa: 944.320.445

Webgunea: www.urtxintxaeskola.org

Errespetuz Elkartea

Helbidea: calle Benidorm 1, Bilbao (Bizkaia)

Telefonoa: 944.764.054

Webgunea: www.erespetuz.blogspot.com

2017-2018rako erronkak

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren erronka nagusia Gune Anitzen kopurua igotzen jarraitzea da, atxikimenduak aktiboki bilatzea.

Aniztasuna zeharkako balore izatea ez da gauetik egunera lortzen den zerbait. Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren ildoko erronketako bat dugu hau eta, beste hainbatekin gertatzen den bezala, eguneroko lana eta epe ertain eta luzerako helburuak ezartzea ezinbestekoa da aurrera giten jarraitzeko.